

Ugaztunetan sexua determinatzen duen molekula-multzo bat aurkitu dute

Ugaztunetan sexua determinatzen duen molekula-multzo bat identifikatu dute Andaluziako Garapen Biologiako Zentroko eta Granadako Unibertsitateko ikertzaileek. Saguetan frogatu dute mikroRNA izeneko RNA molekula txiki batzuk erabakigarriak direla sexu-determinazioaren prozesuan. [Nature Communications](#) aldizkarian argitaratu dute ikerketa.

Ugaztunen enbrioien gonada obulutegi edo testikulu gisa gara liteke. XY enbrioietan, Y kromosoman dagoen SRY geneak testikuluen garapena aktibatzen du, eta, halakorik ez badago, obulutegiaren garapena abiatzen da.

Orain frogatu dutenez, ordea, SYR geneaz gain, mikroRNA-multzo bat ere erabakigarria da. Hain zuzen ere, ikertzaileek ikusi dute mutazio baten ondorioz mikroRNA-multzo jakin bat falta zaien sagu arretan SYR genearen adierazpena atzeratu egiten dela, eta, ondorioz, aldi berean obulutegiaren eta testikuluen garapena abiatzen dela, eta, azkenean, obulutegi gisa garatzen dela. ●



ARG.: Rama/CC BY-SA

Barrabiletan ere topatu dituzte mikroplastikoak

Pertsonen eta txakurren testikuluetan mikroplastikoak topatu dituzte maila esanguratsuetan. Eta ikertzaileek ohartarazi dute litekeena dela horrek eragina izatea ugalkortasunaren jaitsieran.

47 txakurren eta 23 gizonezkoren barrabilak aztertu dituzte, eta guztietan topatu dituzte mikroplastikoak; 12 motatakoak. Txakurren kasuan, batez beste, materia organikoaren gramoko 123 mikrogramo plastiko topatu dituzte; eta, gizakietan, 328 mikrogramo, txakurretan baino hiru aldiz gehiago, eta duela hilabete batzuk [beste ikerketa batek giza karenean aurkitutakoa](#) (126.8 µg/g) baino nabarmen gehiago.



ARG.: European Commission (Lukasz Kobus)/CC BY 4.0.

Kasu guztietan, polietilenoa izan da gehien agertzen polimeroa. Ondoren, txakurretan, polibinil kloruroa (PVC) eta nylon; eta, pertsonetan, akrilonitrilo-butadieno-estirenoa (ABS), nylon eta PVCa, hurrenez hurren.

Txakurren kasuan, ugalkortasun-parametro batzuk ere neurtu dituzte, eta ikusi dute zenbat eta PET eta PVC gehiago izan testikuluek gutxiago pisatzen dutela, eta espermatozoide gutxiago dituztela. ●